

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak ondo funtziona dezan, hainbat jarduera egin beharko ditugu, hauek bezeroekin lotuta egongo dira horrela erreputazioa hobetu eta salmenta gehiago edukiz. Lehenik eta behin gure bezeroekin harreman ona edukitzeko, dendetan ondo tratatu beharko dira, gainera deskontu eta kupoiak edukitzea lantzean behin ideia ona litzateke, horrela, bezeroak erakarri egingo ditugu eta gure produktua ezagutu eta gustatuz gero, pixkanaka gehiago erosten hasiko liratekela uste dugu. Sare sozialetan inpaktu bat sortuz gero, hau gazteei erraz iritsiko litzateke eta gainera zozketak eta antzerako eskainta bereziak eginez gero oraindik gehiago. Foru bat irekiko genuke bezeroek kexak eta iradokizunak bidal ditzaten, irakurri eta ahalik eta konponbide egokiena ematen saiatzeko. Horrela, enpresa obetzeko proposamenak bezeroen beharretan oinarrituta egingo genituzke. Hau guztia ondo eginez gero, gure proiektu hau ondo aterako litzatekela deritzogu, izan ere, gauzak ondo eginez gero aukera gehiago egongo litzateke proiektua ondo irten dadin.